

**IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO  
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, 20/2021  
LEGEAREN 6. eta 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOA**

**GARBIKETA LANGILEAREN ESKALARI DAGOKIONA**

1. – Deitutako plazak.

Lanaldi partzialeko lanpostu 1erako deialdia egiten da garbiketa langilearen eskalako, egunero 2 ordu eta 45 minutukoa, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

PLAZA KOPURUA	LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA	EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.)
1	Garbiketa langilea	Lan- kontratuko langileask Hizkuntza – eskakizuna: 2, derrigortasun-datarik gabe Lanaldi partziala 2 ordu eta 45 minutu egunero asteleheneretik ostiralera Zereginak: udal eraikin eta instalazioen garbiketarekin zerikusia duten guztiak.

**2– Parte hartzeko baldintzak.**

2.1. – Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrekarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. – Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartzen dutenek, gainera, oinarri orokorretako 3.1 atalean adierazitakoa bete beharko dute. Ez da aplikagarria

2.3. – Azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa (deitutako plazena) honako hau da. Ez da aplikagarria

2.4. – Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, eskola-ziurtagiria titulazioa edo baliokidea eskatzen da.

3. – Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

3.1. – Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, hizkuntza-eskakizunak bete beharko dira. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute. Ez da aplikagarria

3.2. – Era berean, deialdi honen xede diren lanpostuei lotutako zenbait lanpostuk betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

Lanpostuaren zereginak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

#### **4. – Hautaketa-prozesua.**

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzaileria izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien % 25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera.

4.1.2. Bigarren zatia: euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzaileria, lotutako lanpostuak dituzten, hizkuntza-eskakizuna duten eta nahitaezko izaera duten lanpostuak dituzten hautagaien zatia. Bestetik borondatezkoa eta ez baztertzaileria, hizkuntza-eskakizuna ez duten lotutako lanpostuetarako lehiatzen direnentzat. Nolanahi ere, maila horri dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da proba. Ez da aplikagarria

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu behar. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Kuartangoko Udalarari erregistro horretan egiaztatzea.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin behar da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeko eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko buruzkoa).

hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketak ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzen diren salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu behar dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko. Ez da aplikagarria

#### **5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntu baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat. Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

#### **6. Lan-poltsa.**

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

## **7. Lehentasun-klausula aplikatzea.**

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako AP taldean.

### **I. ERANSKINA.**

#### **MEREZIMENDUEN BAREMOAK**

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu.

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, Garbiketa langilea deialdia egin duen administrazioan barne, lan egindako egun bakoitzeko 0,01826 puntu.

- Menpekoen lanbide- kategorian lan kontratuko langile gisa egindako zerbitzuengatik edozein herri-administrazio publikoan, deialdia egin duen administrazioan barne, lan egindako egun bakoitzeko 0,00914 puntu, betiere betetako lanpostuek lotura badute deitutako plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin.

- Edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, AP azpitaldean lan egindako egun bakoitzeko 0,00548 puntu, betiere betetako lanpostuek lotura badute deitutako plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin.

a.2. Esperientzia espezifikoa:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan menpekoen lanbide- kategorian egindako egun bakoitzeko 0,00609 puntu.

- Deialdia egin duen administrazioan menpekoen lanbide- kategorian egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0,00305 puntu, betiere betetako lanpostuek lotura badute deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finkoko izaera lortzeko prozeduretan. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.1. – Deitutako plazara sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza akademikoko maila batean dagokion titulua izateagatik, betiere titulazioak deitutako plazari lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero: 10 puntu.

C2: Batxiler-titulua edo teknikari-titulua, edo baliokidea

AP: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo oinarrizko lanbide-heziketako heziketa-zikloa, edo baliokidea

b.2.- Plaza lortzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (baldintza gisa egiaztatutakoaz bestelakoa), betiere titulazioak deitutako plazaei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero: 7,5 puntu.

Lanpostura sartzeko baldintza gisa ezarritakoez bestelako gidabaimenak izatea bakarrik baloratuko da, betiere deitutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia badute.